

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Dibulgazio zientifikoko bildumaren hirugarren argitalpena aurkeztu zaie ikasleei: “Medikuntza pertsonalizatua eta futboleko munduko txapelketa”

Ermitagaña Ikastetxe Publikoko ikasleek ADINA-4 Agentziaren abentura-bolumen berria ezagutu ahal izango dute Navarrabiomed ikerketa biomedikorako zentroan.

Osteguna, 2019.eko martxoak 14

Ostegun honetan, Ermitagaña Ikastetxe Publikoko hogeita hamar bat neska-mutil Navarrabiomeden instalazioetan egon dira, “Medikuntza pertsonalizatua eta futboleko munduko txapelketa” argitalpenaren aurkezpen-markoan. Lehen mailako ikasleen arreta zientzia eta teknologia disziplinetara erakartzeko Garapen Ekonomikoko Sailak editatzen duen dibulgazio zientifikoko bildumaren hirugarren titulua da.



Navarrabiomedera bisitaren talde argazkia

Aurkezpenean, Manu Ayerdik Garapen Ekonomikoko lehendakariordeak estutasun batean ipini ditu ikasleak. Izan ere, neska-mutilei galdetu die nor izatea gustatuko litzaiekeen, Mai Garde, pasadan igandean historia egin zuen Osasuna emakumeen futbol-taldeko burua, edo Oier, astelehenean Malagako ezbeharrei arrakastaz buelta ematea lortu zuen gizonezkoen futbol-taldekoa. Halaber, galdetu die nori gustatuko litzaiokeen zientzialaria izatea eta nori ikertzailea izatea. Hona hemen lehenengo zatiaren emaitza, bisitaren aurrekoa: futbolariak 8 – ikertzaileak 0. Ikerketarako bokazioen porrot handia.

Edonola ere, lehendakariordeak gogoratu die galdera berdina egingo diela Navarrabiomed instalazioetara eta laborategietara bisita amaitzerakoan.

Ikasleek adi entzun dituzte Angel Alonso doktoreak emandako azalpenak. Angel Alonso Nafarroako Ospitale Gunearen Genetika Medikoko



Erderazko edizioaren liburu azala

Zerbitzuan espezialista eta Navarrabiomedeko ikertzailea da, eta, hainbat zeregin kliniko eta ikertzaile burutzeaz gainera, "Medikuntza pertsonalizatua eta futboleko munduko txapelketa!" argitalpenean kolaboratu du.

Azken finean, futbolak eta ikerketak dirudiena baino gauza gehiago partekatzen dituzte. Talentua, inprobisazioa, esfortzua, buru-argitasuna... ezaugarri oso baliagarriak dira gol bat sartzeko (jendearen bizitza alaituz) edo "hainbeste izorratzen gaituzten gaixotasun madarikatu horiei gol-kopuru handi bat sartzeko", istorioaren amaierak dioen bezala.

Nazarinharen genoma

Ayerdiren galdera harira zetorren, izan ere, dibulgazio-hezkuntza bildumaren hirutarren tituluak itxuraz elkarrengandik oso aldentuta dauden bi mundu hurbiltzen dizkigu: futbola eta ikerketa genetiko pertsonalizatua. Clony, Renova, Java y Foody kideek eraten duten ADINA-4 ikerketa-taldeak oraingoan erronka bikoitz bati egin beharko dio aurre. Lehenbizikoa ez da liburuan esplizituki agertzen, eta neska-mutilengan medikuntza pertsonalizatuarekiko interesa piztea da. ADINA-4 lantaldeak lehenen lortu nahi duen helburua Nazarinhak Brasilgo futbol-selekzioko izarrak jasaten duen gaixotasun toxikoaren jatorria bilatzea da, eta sendatzen lagunduko dion tratamendua bilatzea, Parisen munduko finala joka dezan.

Horretarako, canharinha selekzioko arduradunek jokalaria Iruñera eramatea erabaki dute, doitasunezko medikuntzan mundu-mailan punta-puntakoa den hirira, azkenean partidua jokatzeko aukera izan dezan.

Ikerketaren driblinak

Futbolari eta misteriori lotutako istoriotxoarekin batera, liburuak hainbat kontzeptu berrikusten ditu, hala nola DNA, pertsona bakoitzaren genomak osatzen duen entziklopedia osoa edo gene bakoitza eraten duten oinarri kimikoen konbinazioa.

Edizioaren dibulgaziozko parte honetan azaltzen da gure genomaren % 99 besteek daukatena berdin-berdina dela. DNAk duen informazio-bolumena hain da handia ezen % 1eko desberdintasun horrek zehazten du ezkerria, ilegorria, altua edo begi berdekoa izango zaren. Gure geneen % 90 gainontzeko primatuek dutenaren berdin-berdina da ere.

% 1eko desberdintasun horren ondorioz, pertsona bakoitzak tratamenduei modu ezberdinean erantzuten dio, eta aurretik ezartzen du gaixotasun jakinak sufritzeko edo beste batzuei erresistenteagoa izateko joera. % 1 hori, bere mugagabetasunean, doitasunezko medikuntzaren ikerketako lan-eremua da.

Ermitagaña Ikastetxe Publikoko ikasleei azaldu zaie medikuntza pertsonalizatuak herritarren osasuna hobetzea duela xede, gaixoaren genomikari buruzko datuak haren historia klinikoan sartzearen bidez prebentzioa eta diagnostikoa erraztu eta haren ezaugarrietara hobeto egokitzen diren tratamenduak aplikatzeko. Ezarpen horrekin, gainera, osasun-zerbitzuen eraginkortasun ekonomikoa hobetuko da.

Bigarrenik, goi mailako ikerketa-polo batek edo gehiagok, Navarrabiomedek kasu, eskualdeko garapen ekonomikoa hobetuko dute, eta sekuentziazio, datu-analisi, biltegiatze, interpretazio edo segurtasuneko tresneria berria sortuko duen industria-ehun berria ezagutzaz hornituko dute. Industria farmazeutiko eta bioteknologikoak proba osagarriak definitu eta entsegu klinikoak hobeto bideratuta diseinatuko ditu.

Gogoratu behar da osasuna lehentasunezko sektore bat dela Nafarroako Espezializazio Adimenduaren Estrategian, kalitatezko osasun-sistema publiko eta pribatua dituen erkidego batean. Erakunde, ikerketa-zentro, unibertsitate eta enpresa arteko kolaborazio publiko-pribatuak eta medikuntza pertsonalizatuaren estrategiak foru erkidegoa medikuntzaren abangoardian jarriko dute.

Medikuntza pertsonalizatua

Alonso doktoreak Ermitagaña Eskola Publikoko neska-mutilei azaldu die medikuntza pertsonalizatuak gaixotasunei erantzutea bilatzen duela, eta, horretarako, pertsona bakoitzaren kode genetikoak aztertzen

duela diagnostiko zehatzagoak, tratamendu berriak eta terapia espezializatuak eskaini ahal izateko.

Jarraian, taldeak neurozientziei buruzko tailer teoriko-praktiko batean parte hartu du, Navarrabiomedeko Biobanco plataformako profesionalen eskutik. Saioan, neska-mutilak beharrezko tresneriaz hornitu dira benetako zientzialariak bailiran, laborategiko praktikak egin ahal izateko, eta hainbat bitxikeria jakin ahal izan dituzte burmuinaren funtzionamenduari eta ikerketarako post mortem dohaintzari buruz. Ikerketa-zentroko profesionalak emandako azalpenei esker diziplina konplexu batzuk ezagutu ahal izan dituzte.

Zientziarako fitxaketak

ADINA-4 Agentziako detektibe-zientzialarien bildumaren hirugarren argitalpen honek Industria, Energia eta Berrikuntzaren zuzendaritza nagusiaren programa garatzen du, talentua zientziarantz erakartzea bilatzen duena. Horretarako, ikasleen curiositatea areagotzen du diziplina zientifiko, teknologiko eta biomedikoen inguruan, eta, aldi berean, diziplina horien errealitatea erakusten du Nafarroako ikerketa-zentro eta enpresetan.

Bi ekintza horiek bokazio zientifikoak sustatzeko garrantzia agerian jartzen dute, eta, horretarako, ikerketa biomedikoa modu irigarrian sustatu eta ikasleak profesionalekin eta ikerketa-zentroekin harremanetan jartzen dituzte.

Titulu guztiak lau hizkuntzatan daude: gaztelania, euskara, ingelesa eta frantsesa. Aurreko bietan bezala, "[Sabotaje en el Parque Eólico](#)" eta "[¿El Vehículo del futuro ya está aquí?!](#)", "Medikuntza pertsonalizatua eta futboleko munduko txapelketa! argitalpenak Eneko González irudigilearen partaidetza izan du, istorioak marrazteaz gainera Industria, Energia eta Berrikuntzako zuzendaritza nagusiko langileekin eta Ángel Alonso genetista eta ikertzailearekin kolaboratu baitu tramaren idazketan. ADINA-4 Ikerketa Agentziaren hirugarren bolumena Nafarroako ikastetxe guztietan banatuko da. Nobedade gisa, titulu berri honek DNAREN karta-sorta! jokoa barne hartzen du; genoma-sekuentzia bat sortzen duen ebakigarria da, ezaugarri genetikoaren arabera izaki berriak sor ditzakeena.

Bisitaren amaieran, Manu Ayerdik Ermitagañako ikasleei berriro galdetu die nori gustatuko litzaiokeen zientzialaria izatea eta nori ikertzailea izatea. Navarrabiomeden etxeko taldeak erraz irabazi du oraingoan: bokazio zientifikoak 16 – futbolariak 3.

Galería de fotos



